

# SILVER ECONOMYA EUSKADIN



euskadiko merkataritzaren behatokia  
observatorio del comercio de euskadi

## 55 URTETIK GORAKO EUSKAL BIZTANLEEN KONTSUMOA, AISIALDIA ETA IRITZIAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# | AURKIBIDEA

---

<b>1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA</b>	<b>3</b>
1.1. Sarrera eta helburuak	4
1.2. Fitxa teknikoa	6
<b>2. EUSKAL SILVER BELAUNLDIAREN HASTAPENAK</b>	<b>9</b>
2.1. Norberaren osasun-egoerari buruzko iritzia eta epe ertainerako aurreikuspenak	10
2.2. Bizitzako etapa ulertzea	20
2.3. Trebetasun digitalak	25
<b>3. DIMENSIO SOZIALA: AISIALDIA, BIZIMODU AKTIBOA ETA LAGUNTZAK</b>	<b>31</b>
3.1. Ariketa fisikoa egitea	32
3.2. Aisialdia, jarduera interesgarriak	41
3.3. Laguntzaileak	49
<b>4. KONTSUMOAREN DIMENSIOA: KONTSUMOA, OHITURAK ETA MERKATARITZAKO AURREIKUSPENAK</b>	<b>58</b>
4.1. Silver belaunaldiaren kontsumoaren kategoriak	59
4.2. Gastu handieneko erosketen kategoriak	65
4.3. Erosketen kategoriei emandako balioa	69
4.4. Kontsumitzeko ohituren aldaketa	73
4.5. Familiako beste kide batzuentzako erosketak eta gastuak	78
4.6. Online erosteko aukera	85
4.7. Merkataritza biztanle seniorrentzat egokituta dagoen eta arlo horretan zailtasunik duten baloratzea	89
<b>5. SILVER BELAUNLDIAREN IRITZIA</b>	<b>94</b>
<b>6. AZKENIK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK</b>	<b>113</b>



## 1.1. Sarrera eta helburuak

## Sarrera eta helburuak

Enfokamer Merkataritzaren Behatokiak urteak daramatza merkataritzako jardueraren zenbait adierazle eta euskal biztanleen kontsumoaren joerak aztertzen. Era berean, egin dituen azterlan monografikoetan, gai zehatza lantzen du, euskal merkataritza-sektorearentzat gaurkotasuna edo interesa duten zenbait alderdi agerian jartzeko. Oraingo honetan, 55 urtetik gorako euskal biztanleen, hau da, *silver* belaunaldiaren kontsumoaren eta bizitzaren arloko esperientzia aztertu nahi du, baita *silver economy*an daukan eragina eta haientzat interesgarriak diren produktuak, zerbitzuak, jarduera ekonomikoak zein enpresa-jarduerak ere.

Euskadi, inguruko beste herrialde batzuen antzera, gizartearen pixkanakako zahartzapenaren ondorioz sortutako aldaketa demografikoari aurre egiten ari da. Gero eta luzaroago bizi gara, jaiotza-tasak behera egin du eta *silver* belaunaldiak osasun-egoera hobean iristen dira bizitzako etapa horretara. Hori dela eta, aukeraz betetako bizi-zikloko etapa aktiboa hasten da.

Azterlanak euskal belaunaldi seniorra edo *silver* belaunaldia, hau da, 55 urte baino gehiago dituen hobeto ezagutzea dauka helburu, eta, horretarako, bere interesak, aisialdi-jarduerak eta kontsumo-ereduak ditu aztergai. Halaber, honako hauexei buruz zer uste duen ere nabarmenduko dugu: zahartzapenarekin eta erabateko bizitzaren gozamenarekin lotutako estereotipoak eta gizartean esleitzen omen dioten zeregin baztertzaila edo ez.

**Azken batean, azterlan monografikoak sakon aztertu nahi ditu euskal gizartean hain zeresan adierazgarria duen biztanle-segmentu honen kontsumoaren ezaugarriak, baita bere interesak eta aisialdia ere.**

## 1.2. Fitxa teknikoa

# Fitxa teknikoa

Honako berariazkotasun hauek dituen zundaketa kuantitatiboa egin da:



## Ikerketarako teknika

CATI sistemaren bitartez (Computer Aided Telephone Interview) egindako telefono-elkarrizketa, galdera irekien zein itxien eta 12 minutu dirauten balorazio-eskalen bidez "ad hoc" diseinatutako galde-sortan oinarrituta.



## Helburu den unibertsoa

Aztergai den unibertsoa Euskal Autonomia Erkidegoko 55 urteko edo hortik gorako gizonak eta emakumeek osatzen dute.



## Lagin eta errore estatistikoa

**702 elkarrizketa** egin zaizkie 55 urtetik gorako euskal biztanleei, eta errore-marjina  $e = \pm \%3,7$  izan da (%95,5eko konfiantza-mailarako,  $2 s \mu$ -ri dagokionez,  $p=q=0,5$  izanda) giza talde horren inguruan egin nahi diren zenbatespen guztietarako.

Laginketa zenbait aldagaien arabera geruzatu zen. Geruza bakoitzerako zehaztutako esleipena ez-proporzionala izan da lurralde historikoaren zein hiriburuaren/gaineratikoaren kasuan; eta, ondoren, adin-taldearen nahiz sexuaren aldagaien arabera esleipen proporzionala.

Ostean, egindako lagina erabilitako aldagaien benetako proportzionaltasunaren arabera haztatu da.

## Egindako eta haztatutako lagina



Hona hemen egindako eta haztatutako laginaren egitura.

<b>Egindako lagina</b>	55 - 65 urte		66 - 75 urte		75 urte baino gehiago	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Gasteiz	23	25	14	18	7	13
Arabaren gaineratikoa	22	18	11	11	5	8
Bilbo	24	31	18	22	12	20
Bizkaiaren gaineratikoa	38	41	26	31	18	21
Donostia	19	19	15	16	9	12
Gipuzkoaren gaineratikoa	35	32	18	16	15	19
<b>GUZTIRA</b>	<b>161</b>	<b>166</b>	<b>102</b>	<b>114</b>	<b>66</b>	<b>93</b>

<b>Haztatutako lagina</b>	55 - 65 urte		66 - 75 urte		75 urte baino gehiago	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Gasteiz	16	18	11	14	8	9
Arabaren gaineratikoa	7	6	4	4	2	3
Bilbo	25	28	16	20	10	15
Bizkaiaren gaineratikoa	58	61	40	45	24	32
Donostia	13	14	9	11	6	8
Gipuzkoaren gaineratikoa	38	38	26	28	16	21
<b>GUZTIRA</b>	<b>156</b>	<b>165</b>	<b>106</b>	<b>121</b>	<b>65</b>	<b>88</b>



## Egutegia

Landa-lana 2024ko urtarrilaren 30etik otsailaren 21era arte egin da.



---

2.-

EUSKAL *SILVER*  
BELAUNALDIAREN  
HASTAPENAK

## 2.1. Norberaren osasun-egoerari buruzko iritzia eta epe ertainerako aurreikuspenak

Lortutako emaitzen arabera, 55 urtetik gorako euskal biztanle gehienek ustez, haien osasun-egoera ona da. Kontsultatutako %63,4ren iritziz, haien osasun-egoera ona edo oso ona da. Bestetik, %29,7ren usteetan, haien osasun-egoera "hala-holakoa" da, 5 eta 6 arteko puntuazioak eman dituztelako 0tik 10era doan balorazio-eskalan. Azkenik, parte-hartzaileen %6,9k baino ez dute uste euren osasuna txarra dela.

Ulergarria denez, adin biologikoak aurrera egin ahala, osasunaren inguruan daukagun pertzepzioa ere aldatzen da. 55 - 65 urtekoen artean, kontsultatutako hamar lagunetatik zazpik (%73,1) osasun ona dute. Talde hori, ordea, %59,8ra jaisten da 66 - 75 urtekoen artean; eta, are gehixeago, 75 urtetik gorakoen artean (%48,8). Nolanahi ere, 75 urtetik gorakoen artean osasun txarra dutela dioten kopurua %10,9koa denez, proportzioa txikia da guztizkoaren aldean, etapa horretan adinarekin lotutako ajeak ugariak direla kontuan hartuta.

Guztira, gehixeago dira osasun ona edo oso ona dutela uste duten 55 urtetik gorako emakumeak (emakumeen %65,4, gizonen %61,2ren aldean).


Hurrengo bi urteetarako aurreikuspenei dagokienez, hamar kontsumitzaile seniorretatik zazpik berdin egongo direla, euren osasun-egoeran aldaketarik jasango ez dutela uste dute. Aurreikuspenen maila hori egonkorra da adin-talde guztietan. Edonola ere, zahartzen garen neurrian, hobera egiteko aukerak murriztu egiten dira, eta berdin jarraitzea da aurreikuspena.

Hala ere, biztanleen aurreikuspenak zehazten dituen aldagaia da abiapuntua, hau da, gaur egungo osasun-egoera, kasu honetan. Osasun ona dutenentzat, epe ertainean horri eusteko aurreikuspenak %80,8ra igotzen dira.

# Norberaren osasun-egoerari buruzko iritzia

25.G: Gaur egungo osasun-egoera kontuan hartuta, 0tik 10era doan eskalan, bertan 0 oso txarra eta 10 oso ona izanik, zure ustez nolakoa izango litzateke zure gaur egungo osasun-egoera?


Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



# Norberaren osasun-egoerari buruzko iritzia


25.G: Gaur egungo osasun-egoera kontuan hartuta, 0tik 10era doan eskalan, bertan 0 oso txarra eta 10 oso ona izanik, zure ustez nolakoa izango litzateke zure gaur egungo osasun-egoera?

Oinarria: elkarriketatutakoak guztira



# Osasunaren inguruko epe ertainerako aurreikuspenak


26.G: Zure ustez, nolakoa izango da 2 urte barru?  
Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



55 urtetik gorako hamar euskal herritarretatik zazpiren (%69,1) aurreikuspenen arabera, haien osasun-egoera ez da bi urteko epean aldatuko Hamarretatik batek (%10,6), ordea, hobera ere egingo duela uste du


# Osasunaren inguruko epe ertainerako aurreikuspenak

26.G: Zure ustez, nolakoa izango da 2 urte barru?  
Oinarria: elkarriketatutakoak guztira



# Osasunaren inguruko epe ertainerako aurreikuspenak, gaur egungo osasun-egoeraren arabera

26.G: Zure ustez, nolakoa izango da 2 urte barru?  
Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira





Osasun-egoera edonolakoa dela ere, aztergai dugun bizitzako etapari esker, badakigu kontsumitzaile seniorren %16,8k obraren, zaharberrikuntzaren edo hobekuntzaren bat egin dutela euren etxebizitzan azken 2 urteotan, euren premietara eta etorkizuneko premietara egokitzeko asmoz. 75 urtetik gorakoen artean, gainera, hamar lagunetatik bik (%21,5) egin dituzte horrelako zaharberrikuntzak.


Gehien aipatzen dutena bainugelen egokitzapena da, etxebizitzako guneez hezeetan mugitzean irisgarritasun-arazorik eta arriskurik ez izateko. Egokitzapenen bat egin duen *silver* belaunaldiaren %82,6k bainuontzia kendu eta dutxa jarri du haren ordean.

Era berean, %11,3k eusteko eta laguntzeko barrak jarri dituzte dutxan edo bainugelan. %3,7k ohe artikulatua jarri dute, eta, era berean, ateetako markoak zabaldu dituzte. Horrez gain, irisgarritasunaren arloan, eskailerak ekiditeko sistemak (%2,5) ere aipatu dira. Bestetik, %3,6k oso-osorik zaharberritu dute euren etxebizitza, gaur egungo edo etorkizuneko premietara egokitzeko asmoz.

# Etxebizitza bizitzako etaparen arabera egokitzea


27.G: Etxebizitzari dagokionez, obraren, zaharberrikuntzaren edo hobekuntzaren bat egin duzu azken 2 urteotan, zure premietara eta etorkizuneko premietara egokitzeko asmoz?

Oinarria: elkarriketatutakoak guztira




■ Bai    ■ Ez

## Adin-taldearen arabera





## Osasun-egoerari buruzko iritziaren arabera



# Etxebizitzan egindako zaharberrikuntzen mota

28.G: Nolako zaharberrikuntzak edo hobekuntzak egin dituzu?\*

Oinarria: euren etxebizitzan zaharberrikuntzak egin dituzten elkarrizketatuak guztira (n=118)



\* Ez zen inolako erantzunik iradoki. Ustezko erantzun anitza.

## 2.2. Bizitzako etapa ulertzea

Garrantzitsua da nabarmentzea kontsumitzaile seniorrek **hainbat ilusio eta plan dituztela epe laburrean egiteko**. 55 urtetik gorako euskal biztanleen %47,6 ados daude horrekin; eta %27,4, ados samar.


Oro har, emakumeak adosago daude ilusioei eta planei buruzko baieztapenarekin gizonak baino (%50,3, %44,5en aldean). Era berean, adina bera ere kontuan hartu beharreko aldagaia da. 55 - 65 urtekoen artean, hamar kontsumitzailetatik ia-ia zazpik (%64,9) uste dute hainbat ilusio eta plan dauzkatela. Adostasun hori, ordea, %41,7ra jaisten da 66 - 75 urteko biztanleen kasuan; eta, %20,2raino, 75 urtetik gorakoen artean.

Bestetik, kontsumitzaileen %32,1ek irmotasun handiagoz edo txikiagoz baieztatzen dute **euren bizitzako etapa onenetako batean daudela**. %30,1 "ados samar" daude, eta %37,8 baieztapen horren aurka daude. Kasu horretan, gizonen eta emakumeen artean dauden aldeak txikixeagoak dira, gizonek ideia hori gehiago berresten badute ere.

55 - 65 urteko biztanleen %46,7k euren bizitzako etapa onenetako batean daudela uste dute, hau da, erdiak, gutxi gorabehera. Era berean, garrantzitsua ere bada esatea 65 - 75 urtekoen %24,7k uste dutela hori, hau da, adin horretako lau kontsumitzailetatik batek. Hortik aurrera, nabarmendu egiten da 75 urtetik gorakoen artean jauzia dagoela iritzi horri dagokionez.

# Gaur egun bizi duten etapari buruzko iritzia


8.1./8.2.G: Zeure ilusioei eta gaur egun bizi duzun uneari buruzko baieztapenen inguruko adostasun-maila  
Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira




# Gaur egun bizi duten etapari buruzko iritzia

8.1/8.2.G: Zeure ilusioei eta gaur egun bizi duzun uneari buruzko baieztapenen inguruko adostasun-maila  
Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira

■ Gizonak (n=328)    ■ Emakumeak (n=374)



8.1.G. Hainbat ilusio eta plan ditut epe laburrean egiteko




8.2.G. Neure adina kontuan hartuta, bizitzako etapa onenetako batean nago

\* Honako hauexen batura da: "erabat ados" eta "nahikoa ados".


# Gaur egun bizi duten etapari buruzko iritzia

8.1/8.2.G: Zeure ilusioei eta gaur egun bizi duzun uneari buruzko baieztapenen inguruko adostasun-maila  
Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira

■ 55 - 65 urte (n=321) ■ 66 - 75 urte (n=228) ■ 75 urte baino gehiago (n=153)



8.1.G. Hainbat ilusio eta plan ditut epe laburrean egiteko



8.2.G. Neure adina kontuan hartuta, bizitzako etapa onenetako batean nago



## 2.3. Trebetasun digitalak

Hamar kontsumitzaile seniorretatik zortzik smartphonea dute, eta WhatsApp bezalako aplikazioak edo Internet dauzkate bertan. %53,5ek ordenagailua darabilte, eta, %65,5ek baieztatu dutenez, Interneten nabigatzen dira.

- Smartphonea nagusi da aztertutako adin-talde guztietan, nahiz eta adinean aurrera egin ahala gero eta eragin txikiagoa daukan. 75 urtetik gorako parte-hartzaileen artean, bitik batek horrelako ezaugarriak dituen terminala dauka.
- 65 urtetik beherakoen artean, ordenagailua erabiltzeko tasa hamar kontsumitzailetatik zortzikoa da (%77,8). Talde hori %46,1era jaisten da 66 - 75 urtekoen artean. Bestetik, 75 urtetik gorakoen artean, erabilera-tasa hori %13,1era jaisten da.
- Internet ohitura da 65 urtetik gorako hamar biztanletatik bederatzirentzat. Era berean, 66 - 75 urtekoen %61,9 nabigatu egiten dira, baita adin horretatik gorakoen %22,5 ere.

Dena dela, gailu eta IKT tresna horien erabileratik haratago, parte-hartzaileek euren trebetasun digitalak nolakoak diren ere adierazi dute. Alde horretatik, %15,5 maila txikienean egongo lirateke, smartphonerik ez dutelako, Interneten nabigatzen ez direlako edo ordenagailurik erabiltzen ez dutelako. Bestetik, %17,5 oso oinarrizko mailan daude; eta %33,1, oinarrizko mailan. Horrez gain, %26,7ren ustez, euren trebetasun zein gaitasun digitalak erdi-mailakoak dira; eta, %7,1en iritziz, handiak edo oso handiak.



65 urtera arte, erdi mailako edo maila handiko trebetasun digitalak %53,5ekoak dira. 66 - 75 urtekoen artean, %25,9koak direnez, jauzia adierazgarria da 75 urtetik aurrera. Azken adin-talde horretan, %48,1 dira trebetasun horietatik urrunen daudenak, ingurune digitalean inolako trebetasunik ez dutela kontuan hartuta.

# Trebetasun digitalak



20.G: Aipatuko dizkizudan hurrengo elementuetakoren bat erabiltzen duzu?

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



## Smartphonea dute



## Ordenagailua darabilte



## Interneten nabigatzen dira





# Trebetasun digitalak

20.G.: Aipatuko dizkizudan hurrengo elementuetakoren bat erabiltzen duzu?

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



## Smartphonea dute

■ Bai ■ Ez





## Ordenagailua darabilte

■ Bai ■ Ez



## Interneten nabigatzen dira

■ Bai ■ Ez



# Trebetasun digitalak

20.G + 21.G: Trebetasun digitalen sailkapena (berton egina)

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



3.-

---

DIMENTSIO SOZIALA:  
AISIALDIA, BIZIMODU  
AKTIBOA ETA LAGUNTZAK

## 3.1. Ariketa fisikoa egitea



55 urtetik gorako euskal biztanleek baieztatu dutenez, haien bizimodua aktiboa da, ariketa fisikoa edo kirola egin ohi dutelako, kontsultatutakoen %81,3k esan dutena kontuan hartuta. Ariketa fisiko horrek agerpen handixeagoa dauka gizonen artean emakumeen artean baino. Ariketa fisikoan genero-arrakala badago ere, hemen bi puntu portzentualekoa baino gutxixeagokoa da, bizitzako beste etapa batzuen aldean, bertan kirol-ariketaren garapena desberdinagoa delako. Bizimodu aktiboa eramatea nagusi da adin-talde guztietan.

Argi eta garbi dago osasun-egoera orokorrak bizimodu aktiboagoan edo ez hain aktiboan duten partaidetzarekin daukala zerikusia. Osasun ona ez dutenentzat, ariketa fisikoaren garapena %54,5ekoa da. Edonola ere, datu handia ere bada.


Bizitzako etapa honetan, ariketa fisiko ohikoena oinez ibiltzea da. Ariketa fisikoa egiten dutela diotenen %86,6k ariketa hori egiten dute. Oso urrun, beste era bateko kirol-jarduera batzuk daude; esate baterako, gimnasia arina (%9,8), yoga edo pilatesa (%8,8) edo mendi-ibiliak (%7,8), besteak beste.

Gizonek eta emakumeek era guztietako jarduerak aukeratzen dituzte. Gizonek baieztatu dutenez, oinez ibiltzen dira neurri handiagoan (%89,9, %83,6ren aldean). Emakumeek neurri handiagoan egiten dituzte honako kirol hauek: yoga edo pilatesa, gimnasia arina, aquagyma edo dantza.


Ariketa fisikoa egiteko maiztasunari dagokionez, aukerak oso banatuta daude egunero egiten dutenen eta astean birritan edo hirutan egiten dutenen artean. Oraindik aktibo dauden 65 urtetik beherakoen artean, askoz ohikoagoa da kirola astean birritan edo hirutan egitea. 65 urtetik aurrera, ordea, egunero egiten dutela diote gehienek.

# Ariketa fisikoa egitea

1.G: Ariketa fisikoren bat edo kirol-ariketaren bat egin ohi duzu?  
Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira




## Sexuaren arabera



## Adin-taldearen arabera


## Osasun-egoerari buruz duten iritziaren arabera



# Ariketa fisikoaren mota

2.G: Nolako kirola edo kirolak, zehatz-mehatz?\*

Oinarria: ariketa fisikoa egin ohi duten elkarrizketatuak guztira (n=571)




\* Ez zen inolako erantzunik iradoki. Ustezko erantzun anitza.

# Ariketa fisikoaren mota

2.G: Nolako kirola edo kirolak, zehatz-mehatz?\*

Oinarria: ariketa fisikoa egin ohi duten elkarrizketatuak guztira (n=571)




\* Ez zen inolako erantzunik iradoki. Ustezko erantzun anitza.

# Ariketa fisikoaren mota

2.G: Nolako kirola edo kirolak, zehatz-mehatz?\*

Oinarria: ariketa fisikoa egin ohi duten elkarrizketatuak guztira (n=571)




\* Ez zen inolako erantzunik iradoki. Ustezko erantzun anitza.

## Ariketa fisikoa egiteko maiztasuna


3.G: Zenbateko maiztasunaz egiten dituzu jarduera edo kirol hau edo hauek?

Oinarria: ariketa fisikoa egin ohi duten elkarrizketatuak guztira (n=571)



# Ariketa fisikoa egiteko maiztasuna

3.G: Zenbateko maiztasunaz egiten dituzu jarduera edo kirol hau edo hauek?  
Oinarria: ariketa fisikoa egin ohi duten elkarrizketatuak guztira (n=571)



## Ariketa fisikoa egiteko maiztasuna

3.G: Zenbateko maiztasunaz egiten dituzu jarduera edo kirol hau edo hauek?

Oinarria: ariketa fisikoa egin ohi duten elkarrizketatuak guztira (n=571)

	Guztira (n=571)	Adin-taldea		
		55 - 65 urte (n=268)	66 - 75 urte (n=190)	75 urte baino gehiago (n=113)
Egunero	%50,2	%39,5	%63,8	%52,6
Astean birritan edo hirutan	%46,0	%54,6	%34,9	%44,4
Astean behin	%3,4	%5,8	%0,9	%1,6
Maiztasun txikiagoaz	%0,4	--	%0,4	%1,4



## 3.2. Aisialdia, jarduera interesgarriak

Biztanle seniorren aisialdia betetzen duten edukiei dagokienez, ezin da esan jarduera interesgarririk agertzen ez denik, 4,4 aukera desberdin aipatu dituztelako batez beste. Oro har, telebista ikusten dute, biztanleen %74,5ek adierazi dutenez, eta lagunekin elkartzeko dira, %62,4k aipatu dutenez.

Bigarren mailan, helburu ditugun biztanleen artean, honako hauxe ere bada ohikoa: irakurtzea (%52,6), familiarekin elkartzeko (%50,9) edo bidaiatzeko (%49,1).



Taldea kontuan hartuta, hainbesteko zeresanik ez badauka ere, honako hauxe ere bada nabaria: Interneten nabigatzeko (%27,4), kirola edo ariketa egiteko (%19,7), zinera joateko (%19,4), eskulanak edo brikolajea egiteko (%19,3), ikuskizun kulturaletara joateko (%16,9), kartetan jokatzeko (%10,4) edo ilobak zaintzeko (%9,9), besteak beste.

Emakumeek neurri handiagoan aipatu dute lagunekin elkartzeko, zinera edo ikuskizun kulturaletara joateko, eskulanak egiteko edo ilobak zaintzeko. Gizonek, ordea, honako hauxe aipatu dute neurri handiagoan: Interneten nabigatzeko, kirola egiteko edo kartetan jokatzeko.

# Aisialdiko interesak

4.G: Nolako jarduerak egin ohi dituzu zeure aisialdian?\*

Oinarria: elkarriketatutakoak guztira




\* Erantzun-aukerak irakurri ziren. Ustezko erantzun anitza.

# Aisialdiko interesak

4.G: Nolako jarduerak egin ohi dituzu zeure aisialdian?\*

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



\* Erantzun-aukerak irakurri ziren. Ustezko erantzun anitza.

## Aisialdiko interesak

4.G: Nolako jarduerak egin ohi dituzu zeure aisialdian?\*

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira

	Guztira (n=702)	Adin-taldea		
		55 - 65 urte (n=321)	66 - 75 urte (n=228)	75 urte baino gehiago (n=153)
Telebista ikustea	%74,5	%74,5	%68,8	%83,1
Lagunekin elkartzea	%64,2	%70,6	%68,3	%44,9
Irakurtzea	%52,6	%56,0	%56,4	%39,9
Familiarekin elkartzea	%50,9	%54,5	%53,3	%39,9
Bidaiatzea	%49,1	%60,5	%52,8	%19,8
Interneten nabigatzea	%27,4	%44,0	%18,8	%5,2
Kirola / ariketa egitea	%19,7	%26,5	%19,3	%6,1
Zinera joatea	%19,4	%26,1	%18,4	%6,9
Eskulanak / brikolajea egitea	%19,3	%17,3	%24,2	%16,3
Ikuskizun kulturaletara joatea (musika, antzerkia...)	%16,9	%22,5	%16,6	%5,6
Kartetan jokatzeko	%10,4	%8,8	%13,8	%8,5
Ilobak zaintzea	%9,9	%6,1	%17,9	%6,1
Prestakuntzako ikastaroetara joatea / klaseak jasotzea	%6,6	%9,6	%6,8	%0,2
Dantzan joatea	%6,0	%8,8	%4,0	%3,3
Boluntariotza egitea	%4,4	%5,5	%3,0	%4,0
Ortua / Baratzegintza / Lorezaintza	%2,4	%2,0	%2,7	%2,8
Musika entzutea / Irratia entzutea	%2,3	%1,4	%3,4	%2,7
Sukaldaritza / Gozogintza	%1,9	%1,6	%1,9	%2,3
Gurutzegramak / Sudokuak / Denbora-pasak egitea	%1,1	%0,3	%2,1	%1,2
Euren maskotak zaintzea	%0,6	%1,0	%0,4	--
Abestea (abesbatzak, koralak...)/ Musika jotzea	%0,5	%0,8	%0,4	--
Beste batzuk	%1,5	%0,9	%1,9	%2,0
Ed/Ee	%0,1	--	--	%0,4

Aisialdiko jarduerak batez beste	4,4	5,0	4,6	3,0
----------------------------------	-----	-----	-----	-----

Parte-hartzaileen %49,1ek bidaiak, bidaiatzea, txangoak edo joan-etorriak aipatu dituzte gustukoak dituzten aisialdiko jardueretakoan artean. Horri buruz berriaz galdetutakoan, ia-ia guztiek bidaiaren edo txangoren bat egin zuten iaz, hamar zaletatik bederatzik (%92,0), alegia.

Bidaian joan ez zirenek (%8,0) bi arrazoi desberdin aipatu dituzte batez ere. Batetik, ez zuten aukerarik izan. Bestetik, mugikortasunagatik, ikusmenaren edo beste gaitasun batzuen galeragatik, zahartzapenagatik edo gaixotasunagatik murriztu zituzten euren txangoak.


Era berean, lanagatik, familiako kideak zaintzeko erantzukizunengatik edo prezioen igoeragatik beragatik ere mugatu dira talde hauen bidaiak.

Iaz bidaiatu zuten *silver* belaunaldiko euskal herritarrak Estatuko bertako helmuga batera (%66,8) joan ziren batez ere. Hori dela eta, seguruenik asteburuak edo bigarren etxebizitzetako oporrak ere kontuan hartu dituzte bertan. Bestetik, %9,0k atzerriko helmuga aukeratu zuten, eta %24,2k bat baino gehiago egin zuten, bi aukerak kontuan hartuta.

# Bidaiak, aisialdiko jarduera

5.G: Bidaiatzea gustuko duzula esan didazunez, iaz bidaiaren bat egin zenuen aisialdiagatik?


Oinarria: aisialdiko zaletasunen artean bidaiatzea aipatu duten elkarrizketatuak guztira (n=345)



# Haien gustukoak izan arren, iaz zergatik ez zuten inolako bidaiarik egin

7.G: Zergatik ez zenuen inolako bidaiarik egin iaz?\*

Oinarria: iaz bidaiatu ez zuten arren, aisialdiko zaletasunen artean bidaiatzea aipatu duten elkarrizketatuak guztira (n=28)



\* Ez zen inolako erantzunik iradoki. Ustezko erantzun anitza.



## 3.3. Laguntzaileak

Euskal biztanle seniorren ustez, honako hauexek dira haien laguntzaile nagusiak, hau da, behar dutenean hantxe daudenak:

- Seme-alabak (%75,4)
- Beste senide batzuk (lobak, neba-arrebak...) (%57,4)
- Bikotekidea (%51,7)
- Lagunak (%42,5)


Biztanle seniorren adin-taldeak kontuan hartuta, nabarmendu beharreko zenbait alde daude:

- ✓ Batetik, 55 - 65 urtekoen artean, *silver* belaunaldiaren laguntza nagusia bikotekidea da. Bizitzako etapa horretan, gurasoak ere badaude, beste adin-talde batzuen aldean.
- ✓ Bikotekidearen laguntzak apurka-apurka egiten du behera, elkarrizketatutakoen adinak gora egiten duen neurrian, baina, batez ere, 75 urtetik gorakoen artean, bertan pertsona bakarreko familiak hazi egiten direla kontuan hartuta.
- ✓ 65 urtetik gorakoentzat, ordea, seme-alabak dira laguntza nagusia.
- ✓ Lagunak erreferente etengabea dira aztertutako etapa guztietan.

# 55 urtetik gorako biztanleen laguntzaile nagusiak

9.G: Nork ematen dizu laguntza behar duzunean?\*


Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



# 55 urtetik gorako biztanleen laguntzaile nagusiak

9.G: Nork ematen dizu laguntza behar duzunean?\*

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



# 55 urtetik gorako biztanleen laguntzaile nagusiak

9.G: Nork ematen dizu laguntza behar duzunean?\*

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira

	Guztira (n=702)	Adin-taldea		
		55 - 65 urte (n=321)	66 - 75 urte (n=228)	75 urte baino gehiago (n=153)
Haien seme-alabak	%75,4	%67,4	%79,3	%86,4
Beste senide batzuk (lobak, lehengusu-lehengusinak...)	%57,4	%56,3	%60,1	%55,8
Bikotekidea	%51,7	%67,7	%47,8	%24,1
Haien lagunak	%42,5	%47,7	%40,9	%33,7
Haien gurasoak	%6,7	%12,4	%3,2	--
Laguntza moduan kontratatutako langileak	%2,5	%0,8	%2,8	%5,6
Auzokideak / Lankideak	%0,5	%0,4	%0,4	%1,0
Ed/Ee	%0,6	%0,9	%0,4	%0,4

■ Laguntzaile nagusia
 ■ Beste garrantzitsu batzuk


Oro har, gehienek haientzat garrantzitsuak direnen babesak sentitzen dute. %46,7k irimotasun osoz baieztatu dute hori; eta %44,5ek, nahikoa segurtasunez. Biztanle seniorrek ez dute haientzat garrantzitsuak direnen edo euren laguntzaileak direnen babesak erabat sentitzen, hamarretatik batek adierazi duenez. Inolako zalantzarik gabe, laginketak gure gizartean ematen diren bakardade-aztarnei erreparatzeko aukera mugatu du.

Puntu honetan, ez dirudi adinaren aldagaiak laguntzen edukitzari buruz zer uste duten argituko duenik. Edonola ere, antzeman egiten da badirudiela emakumeek inguruko babes handiagoa sentitzen dutela gizonen baino.

Bestetik, osasun-egoerak kontuan hartu beharreko aldeak uzten ditu agerian, osasun txarra edo hala-holakoa omen dutenek babes txikiagoa daukatela uste dute-eta. Era berean, bakar-bakarrik bizi direnen artean, are gehiago uste dute laguntza edo babes txikiagoa daukatela.

## Laguntzaileei buruzko balorazioa


8.3.G: Laguntzaileei buruzko baieztapenarekin duzun adostasun-maila  
Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



# Laguntzailei buruzko balorazioa aldagaien arabera

8.3.G: Laguntzailei buruzko baieztapenarekin duzun adostasun-maila

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira




# Laguntzaileei buruzko balorazioa aldagaien arabera

8.3.G: Laguntzaileei buruzko baieztapenarekin duzun adostasun-maila

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira

Euren gaur egungo osasun-egoerari buruz duten iritziazen arabera






# Laguntzaileen balorazioa aldagaien arabera

8.3.G: Laguntzaileei buruzko baieztapenarekin duzun adostasun-maila

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira

## Familia-motaren arabera



4.-

---

KONTSUMOAREN  
DIMENTSIOA: KONTSUMOA,  
OHITURAK ETA  
MERKATARITZAKO  
AURREIKUSPENAK

## 4.1. *Silver* belaunaldiaren kontsumoaren kategoriak

Azken urtean, 55 urtetik gorako euskal biztanle gehienek zenbait erosketa-kategoriatan erosi edo kontsumitu dute; esate baterako, oro har kontsumitzen diren elikagaiak. Bigarren mailan, baina gehienek ere, honako produktu hauek erosten dituzte: norberaren ekipamendurako produktuak, hau da, moda, oinetakoak eta janzteko osagarriak (%68,3) eta osasunarekin lotutako produktuak (%61,1); esate baterako, farmazia, ortopedia, optika, entzumen-zentroak...

Ondoren, honako hauexek izango lirateke *silver* belaunaldiarentzat garrantzitsuak diren beste kontsumo-arlo batzuk: bidaiak (%39,2), kosmetikako produktuak zein edertasun-produktuak (%35,8), etxetresna elektrikoak (%28,9) eta liburuak, musika edo kultura (%28,1).

Neurri txikiagoan, biztanleok honako arlo hauetako produktuak ere erosi dituzte: dekorazioko produktuak, altzariak eta etxeko produktuak (%22,9), kirolerako produktuak (%17,0) eta tresna elektronikoak (%15,1), besteak beste.


Kontsumitzaileen adinak gora egiten duen neurrian, egindako erosketen kategoriak murriztu egiten dira apurka-apurka, eta, 75 urte baino gehiagokoen artean, honako hauexek dira nagusi: elikagaiak eta osasunarekin lotutako produktuak. Azken hori, gainera, gero eta zeresan handiagoa daukan kategoria da.

55 - 65 urteko kontsumitzaileen %53,2k erosketak egin dituzte osasunarekin lotutako establezimenduetan, kopuru hori %63,8ra igotzen da 66 - 75 urtekoen artean eta %73,8ra iristen da 75 urte baino gehiagoko parte-hartzaileen artean.

# Azken urteko kontsumoaren kategoriak

10.G: Hurrengo produktuen kategorietatik, zeinetan izan duzu gasturen bat azken urtean?\*


Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



# Azken urteko kontsumoaren kategoriak

10.G: Hurrengo produktuen kategorietatik, zeinetan izan duzu gasturen bat azken urtean?\*

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



\* Erantzun-aukerak irakurri ziren. Ustezko erantzun anitza.

## Azken urteko kontsumoaren kategoriak

10.G: Hurrengo produktuen kategorietatik, zeinetan izan duzu gasturen bat azken urtean?\*


Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira

	Guztira (n=702)	Adin-taldea		
		55 - 65 urte (n=321)	66 - 75 urte (n=228)	75 urte baino gehiago (n=153)
Elikagaiak	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0
Arropa, oinetakoak eta janzteko osagarriak	%68,3	%77,3	%68,6	%48,9
Osasunarekin lotutako produktuak	%61,1	%53,2	%63,8	%73,8
Bidaiak	%39,2	%50,3	%42,6	%10,6
Kosmetikoak, edertasun-produktuak	%35,8	%41,0	%36,8	%23,4
Etxetresna elektrikoak	%28,9	%34,1	%26,8	%21,2
Liburuak, musika, kultura	%28,1	%32,0	%32,7	%12,8
Etxeko produktuak: dekorazioa eta altzariak	%22,9	%27,8	%21,8	%14,3
Kirolerako produktuak	%17,0	%27,4	%12,6	%1,7
Tresna elektronikoak: ordenagailuak, mugikorrak, tabletak eta osagarriak...	%15,1	%23,0	%9,7	%6,4
Beste batzuk	%9,2	%12,9	%7,6	%3,8

# Kontsumoaren bilakaera erosketa-kategorien eta adin-taldearen arabera

10.G: Hurrengo produktuen kategorietatik, zeinetan izan duzu gasturen bat azken urtean?\*

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



\* Erantzun-aukerak irakurri ziren. Ustezko erantzun anitza.



## 4.2. Gastu handieneko erosketen kategoriak

Azterlanean parte hartu duten biztanle seniorrentzat gastu handiena diren erosketen kategoriei erreparatuz gero, ikusi egin dugu erosketa-saskia, elikagaiak, oro har, direla gastu handiena sorrarazten dien kategoria.

Ostean, eragin handiko hiru kategoria daude, hau da, norberarentzako ekipamendua, osasunarekin lotutako produktuak eta bidaiak.

Era berean, etxetresna elektrikoen kontsumoak ere badu nolabaiteko zeresanik, eta zenbatekoa handiagoa da, iaz biztanle-talde txikiagoak kontsumitu bazituen ere.


Gainerako kategoriak urrun daude, gastuari dagokionez.

55 - 65 urteko kontsumitzaileentzat, gastuari dagokionez garrantzi handiagoa daukaten kategoriak elikagaiak, norberarentzako ekipamendua eta bidaiak dira. 66 - 75 urtekoen artean, kategoriak berberak dira, nahiz eta bidaien zeresana murriztu egiten den eta osasunarekin lotutako produktuen zeresana handiagoa den. 75 urtetik gorakoan artean, gastu handiena elikagaietan eta osasunean egiten dute, batez ere.

# Gastu handieneko kategoriak

11.G: Hurrengo hauetatik, zuretzat zein izan da gastu handiena azken urtean?\*

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



## Gastu handieneko kategoriak

11.G: Hurrengo haueetatik, zuretzat zein izan da gastu handiena azken urtean?\*

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira

	Guztira (n=702)	Adin-taldea		
		55 - 65 urte (n=321)	66 - 75 urte (n=228)	75 urte baino gehiago (n=153)
Elikagaiak	%99,2	%98,2	%100,0	%100,0
Arropa, oinetakoak eta janzteko osagarriak	%42,8	%47,9	%41,4	%34,1
Osasunarekin lotutako produktuak	%33,9	%20,1	%33,1	%64,3
Bidaiak	%33,1	%43,1	%35,6	%8,5
Etxetresna elektrikoak	%19,3	%21,7	%17,0	%17,7
Kosmetikoak, edertasun-produktuak	%8,1	%8,0	%8,9	%7,1
Etxeko produktuak: dekorazioa eta altzariak	%7,9	%9,2	%8,7	%4,1
Liburuak, musika, kultura	%5,8	%4,7	%9,9	%2,1
Tresna elektronikoak: ordenagailuak, mugikorrak, tabletak eta osagarriak...	%4,0	%5,0	%3,6	%2,6
Kirolerako produktuak	%3,4	%5,6	%2,1	%0,5
Beste batzuk	%9,0	%12,6	%7,6	%3,8

## 4.3. Erosketen kategoriei emandako balioa

Zer produktu diren garrantzitsuak kontuan hartzeko orduan, datuen arabera, argi eta garbi dago garrantzi handia-handia ematen zaiela elikagaiei, gainerako kontsumo-kategorien aldean. Hori, gainera, zeharkakoa da *silver* belaunaldiko adin-talde guztietan.


Hortik urrun-urrun, kontsumitzaileen %26,9k osasunarekin lotutako produktuak jartzen dituzte aurretik. Elikagaiekin gertatzen den bezala, kategoria horri emandako garrantzia berbera da adin-tarte guztietan.

Bestetik, %11,7ren esanetan, haientzat balio handiena duen kontsumo-kategoria bidaiak dira. Kategoria horrek, gainera, zeresan handiagoa du 55 - 65 urtekoen taldean; eta txikixeagoa, oraindik ere nabaria den arren, 66 - 75 urtekoen artean.

# Kategoria garrantzitsuenak

12.G: Era guztietako produktuetatik, zuk zeuk zeini ematen diozu garrantzi handiena?\*

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



## Kategoria garrantzitsuenak

12.G: Era guztietako produktuetatik, zuk zeuk zeini ematen diozu garrantzi handiena?\*

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira

	Guztira (n=702)	Adin-taldea		
		55 - 65 urte (n=321)	66 - 75 urte (n=228)	75 urte baino gehiago (n=153)
Elikagaiak	%96,8	%96,0	%97,0	%98,4
Osasunarekin lotutako produktuak	%26,9	%28,2	%25,5	%26,3
Bidaiak	%11,7	%16,6	%10,2	%3,5
Arropa, oinetakoak eta janzteko osagarriak	%6,1	%8,1	%5,5	%2,8
Liburuak, musika, kultura	%5,6	%6,3	%6,1	%3,3
Kosmetikoak, edertasun-produktuak	%2,5	%3,0	%2,3	%1,5
Etxetresna elektrikoak	%2,4	%2,8	%1,4	%2,9
Etxeko produktuak: dekorazioa eta altzariak	%1,6	%2,3	%1,7	--
Kirolerako produktuak	%1,3	%2,2	%0,4	%0,5
Tresna elektronikoak: ordenagailuak, mugikorrak, tabletak eta osagarriak...	%1,0	%1,6	--	%1,0
Beste batzuk	%3,8	%6,0	%2,9	%0,3



## 4.4. Kontsumitzeko ohituren aldaketa

Kontsumitzaileek 55 urtetik gorako lau biztanletatik hiruk adierazi dutenez, azken urteotan ez dute kontsumitzeko edo erosteko ohiturarik aldatu kategoriatan bakar batean ere (%74,8). Kontsumitzeko ohiturak aldatu dituztela baieztatu dutenak adin-talde gazteenetan daude batez ere, 55 - 65 urtekoen artean, alegia. Gainera, proportzio hori apurka-apurka gutxitzen da, parte-hartzaileen adinak gora egiten duen neurrian.

Badirudi ohituen aldaketa maila handiagoan agertzen dela elikagaien erosketan, bertan kontsumitzaile seniorren %13,0k euren ohiturak aldatu dituztela baieztatu dute-eta. Erosketen gainerako kategoriak gutxiagotan aipatu dira, nahiz eta nolabaiteko eragina daukatela antzeman den.

Ohiturak aldatzeko arrazoiak era askotakoak dira, baina funtsezko zenbait kontzeptutan laburtu daitezke:


- *Prezioen gorakada.* Erosketa-saskian maila handiagoko eragina izan duen *inflazioa* dago kontsumitzeko ohitura berrien atzean. Ohiturak aldatu dituztenen %34,9k faktore hori aipatu dute, hain zuzen ere.
- Argi eta garbi dago *bizitzako etapa* honetan garrantzi handia ematen diotela *norberaren zainketari*. Horren arabera, kontsumitzaileen esanetan, orain gehiago zaintzen dute euren elikadura, modu osasungarriagoan jaten dute (%15,2) edo lehentasun handiagoa ematen diete osasunari nahiz norberaren zainketari (%7,5).
- Era berean, *muga* batzuek zerikusia izan dezakete zahartzapenarekin; esate baterako, mugimenduak mugatzen dituen funtzionaltasuna galtzea (%13,3). Izan ere, honako esaldi hauen bidez azaldu dute hori: "lehen gehiago bidaiatzen nuen edo atzerrira bidaiatzen nuen" (%2,6) edo "orain ezin ditut produktu batzuk jan edo gutxiagotan jaten ditut" (%2,4).

- Halaber, garrantzia galdu duten zenbait erosketa-kategoriaren inguruko *interesa galdu dute* (%3,5). Hori dela eta, beste atal batzuetara *mugitu da gastua* (%5,6).
- Horrez gain, *eurentzako denbora irabazi dutenez*, gehiago kontsumitzen dute zaletasunetan, eta, horren ondorioz, honako baieztapen hauek egin dituzte: “orain gehiago bidaiatzen dugu” (%1,3) edo “orain astialdi gehiago dut kirol gehiago egiteko” (%1,1).



# Erosteko ohituren aldaketa

13.G: Era guztietako produktuetatik, zeinetan aldatu dituzu zeure ohiturak azken urteotan?

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira




Ohiturak aldatu dituzte, adin-taldearen arabera



# Ohiturak aldatzeko arrazoiak

14.G: Zergatik aldatu dituzu zeure kontsumo-ohiturak?\*

Oinarria: euren kontsumoko ohiturak aldatu dituzten elkarrizketatuak guztira (n=173)



\* Erantzun-aukerak irakurri ziren. Ustekoko erantzun anitza.

## 4.5. Familiako beste kide batzuentzako erosketak eta gastuak

55 urtetik gorako euskal kontsumitzailetatik ia-ia batek erosketak egiten ditu bere familiako beste kide batzuentzat (%22,8). Hemen, alde esanguratsuak daude gizonen eta emakumeen artean. Bizitzako etapa honetan, emakumeen %26k euren familiako beste pertsona edo kide batzuentzat erosten dute; eta, gizonen kasuan, %19,2k, hau da, 6,8 puntu portzentual gutxiago. Beste kide batzuentzako erosketa horiek 55 - 65 urtekoen artean dira nagusi, batez ere.

Kontsumo gehigarri horrek seme-alaben premiei aurre egitea dauka helburu nagusi, familiako beste kide batzuentzat erosten duten biztanleen %70,3k aipatu dutenez. Era berean, nabarmendu egin beharra dago zahartzapenaren prozesuko etapa aurreratuagoetan dauden eta, batez ere, 55 - 65 urteko biztanleen ardurapean dauden gurasoak direla erosketa gehigarri horietako hartzaileak. Hirugarren postuan, ilobak agertzen dira, eta zeresan handixeagoa dute emakumeen artean.

Berriro ere, erositako produktuek aurretik jarri dituzte elikagaien erosketak; eta, ondoren, modako produktuak, oinetakoak eta osagarriak. Elikagaien erosketek dagokienez, seme-alabak nahiz ilobak dira hartzaileak, nahiz eta zeresan berezia daukaten adin aurreratuagoan dauden gurasoei buruz hitz egiten dugunean.


Gurasoen kasuan, osasunarekin lotutako produktuak ere badira gehien aipatutako bigarren erosketa-kategoria; esate baterako, farmaziako produktuak, ortopedia, optikak eta audiometriako produktuak.

Bestetik, badirudi ilobentzako erosketetan jantziak eta jostailuak direla nagusi, batez ere.


# Familiako beste kide batzuentzako erosketak

15.G: Zuretzat ez ezik, beste batzuentzat ere erosten dituzu zenbait produktu?


Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



## Beste batzuentzako erosketak egiten dituztenen ehunekoa, sexuaren arabera



## Beste batzuentzako erosketak egiten dituztenen ehunekoa, adin-taldearen arabera






# Norentzat den kontsumo gehigarri hori

16.G: Norentzat egiten dituzu erosketak horiek?\*

Oinarria: beste batzuentzat erosten duten elkarrizketatuak guztira (n=160)




\* Ez zen inolako erantzunik iradoki. Ustezko erantzun anitza.

# Beste batzuentzat erosten dituzten produktuen mota

17.G: Nolako produktuak erosi ohi dituzu?

Oinarria: beste batzuentzako erosketak egiten dituzten elkarrizketatuak guztira (n=160)



## Aipatutako giza talde nagusientzako erosketak

	Seme-alabentzat	Gurasoentzat	llobentzat
Elikagaiak	75,4	83,4	56,0
Arropa, oinetakoak eta janzteko osagarriak	57,7	56,6	74,1
Osasunarekin lotutako produktuak (farmazia, ortopedia, optikak, audifonoak...)	11,2	63,6	--
Kosmetikoak, edertasun-produktuak	11,9	23,3	4,3
Liburuak, musika, kultura	13,4	4,1	15,2
Jostailuak, jokoak	6,6	3,9	26,2
Etxeko produktuak: dekorazioa eta altzariak	5,5	9,1	--
Tresna elektronikoak: ordenagailuak, mugikorrak, tabletak eta osagarriak...	7,7	6,5	6,4
Etxetresna elektrikoak	4,2	7,1	--
Kirolerako produktuak	2,6	1,9	--
Bidaiak	2,5	--	--
Beste batzuk	0,3	--	1,5

Dena dela, beste batzuentzako erosketetatik haratago, batez ere familiako beste kide batzuk direla kontuan hartuta, kontsultatutako hamar lagunetatik bik baieztatu dute euren ondarearen edo diru-sarreraren zati bat erabili dutela familiako beste kide batzuen gastuak ordaintzeko (%20,5).


Gainera, batez ere, gastu hori familiako beste kide batzuen gastu orokorrak ordaintzeko laguntzat hartzen da, euren diru-sarreraren zati bat horretarako erabili dutenen %34,7k aipatu dutenez. Era berean, besteak beste, honako partida hauek ere hartzen dituzte euren gain: seme-alaben edo iloben ikasketak (%28,5) edo senideen hipoteken kuotak (%13,6). Halaber, honako hauexek ere badute zeresanik: emantzipatzeko, alokatzeko edo erosteko laguntzak eta seme-alaben etxebizitzaren egokitzapena.

Batez beste, seniorren diru-sarrera guztien %18,8koak dira laguntza horiek.

# Biztanle seniorrek euren gain hartzen dituzten gastu familiarrak

18.1.G: Beste batzuentzako erosketak egin ez ezik, zeure diru-sarreraren edo ondarearen zati bat ere erabili duzu familiako beste kide batzuen gastuak ordaintzeko?

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira




18.3.G: Zure ustez, urteko diru-sarreraren zenbateko ehunekoa darabilzu laguntza horretarako?

Oinarria: euren diru-sarrerak familiako beste kide batzuentzat darabiltzaten elkarrizketatuak guztira

18.2.G: Nolako gastuak dira, zehatz-mehatz?\*

Oinarria: euren diru-sarrerak familiako beste kide batzuentzat darabiltzaten elkarrizketatuak guztira



## 4.6. Online erosteko aukera

Lehenago ikusi dugunez, 55 urtetik gorako euskal biztanleen %65,5ek Interneten nabigatzen direla diote. Alde horretatik, online erosketak biztanle seniorren kontsumoan ere agertzen den alternatiba da. Hartara, %33,1en esanetan, noizbait erosi dute online, eta %20,2k nolabaiteko maiztasunaz erosten dute.

Gai honetan, elkarrizketatuen adinak zeresan handia dauka. 65 urtetik beherako kontsumitzaileen artean, online erosteko aukera %67,1ekoa da, nahiz eta %41,0k noizbait erosi dutela adierazi duten, baina ez ohikotasunez. Adin-talde horretan, ohiko erosketak %26,1ekoa da, hain zuzen ere.

66 - 75 urtekoen artean, online erosteko aukera kontsultatutakoen %36,0n agertzen da; eta, berriro ere, maila handiagoan, unean-unean. 75 urtetik gorakoen artean, ordea, %10,1era jaisten da, eta, modu berean, unean unekotzat jotzen dute.


*Silver* kontsumitzaileen esanetan, online saltzeko kanala darabilte zenbait abantaila dituelako haintzat; esate baterako, joan-etorriak ez egiteagatiko erosotasuna (%56,9), era guztietako produktuak eta aukera zabalagoa (%19,4) edo kanalarekin lotutako prezio onak eta eskaintzak (%15,3).

Antzematen dituzten eragozpenak, ordea, ez omen dira hain sakonak, %41,8k ez dutelako bat bera ere zehatz-mehatz aipatu. Baten bat aipatu dutenentzat, honako hauexek dira nagusiak: produktua ez ikustea eta ez ukitzea (%14,1), uste bezalakoak ez diren produktuak aurkitzea (%5,8), erosteko orrialdeetan iruzurra edo engainua jasateko arriskua izatea eta nola antzeman (%8,9) eta ordaintzeko segurtasuna edukitzea (%5,7).

# Online erosteko aukera

22.G: Erosketak egiten dituzu Internet bidez?

Oinarria: Interneten nabigatzen diren elkarrizketatuak guztira (n=460)




# Online erosketen abantailak eta eragozpenak

23.G/24.G: Zure ustez, zer abantaila dituzte online erosketek? / Nolako zailtasunak dituzu online erosteko orduan?\*

Oinarria: online erosten duten elkarrizketatuak guztira (n=245)

## Abantailak



## Eragozpenak





## 4.7. Merkataritza biztanle seniorrentzat egokituta dagoen eta arlo horretan zailtasunik duten baloratzea

Kontsumoaren atalean, biztanle seniorrek merkataritza fisikoan aurkitu ahal izan dituzten zailtasun batzuen eraginean sakontzea izan da helburua, Euskadi Lagunkoia edo antzeko ekimenen harira, esaterako. Izan ere, adinekoen eta, oro har, herritarren partaidetza suspertzea dauka xede, Euskadiko auzoak eta inguruneak hobetzeko asmoz. OMEk sustatutako "Age-friendly Environments Programme" ekimenean oinarrituta, jendearen bizimodu aktibo eta autonomoari eustea du xede, baita gure udalerrri eta inguruneetako merkataritza sustatzea ere.

Alde horretatik, *silver* kontsumitzaileek merkataritzari buruz oro har adierazitako zenbait iritzi nabarmendu behar ditugu:

- 55 urtetik gorako euskal biztanleen %47,1en iritziz, euskal merkataritza erabat egokituta dago adineko biztanleen premietara. %33,0 ados samar daude baieztapen horrekin, eta %19,5 ez daude batere ados ideia horrekin. Puntu honetan, 55 - 65 urteko biztanleak kritikoagoak dira, eta, haien artean, lautik batek gaitzetsi egiten du merkataritza egokituta dagoenik, beharbada haien zailtasunik ez daukaten arren, euren gurasoak datozkielako gogora.
- Merkataritzan dauden zailtasun batzuei dagokienez, nabarmendu egin beharra dago biztanle seniorren %36,6ren esanetan zailtasunak dituztela etiketak eta informaziorako kartelak irakurtzeko, bertan erabilitako letraren tamainagatik. Zailtasun hori, gainera, berriro agertzen da neurri handiagoan 55 - 65 urtekoen artean.

- Aipatutako beste zailtasun batzuen eragina, ordea, txikiagoa da; esate baterako, dendako langileei laguntza eskatu behar izana oso eskuragarri ez dauden produktuak hartzeko, oso apalategi garaietan edo oso baxuetan daudelako. Biztanle seniorren %17,1i gertatu zaie hori. Edonola ere, 75 urte baino gehiagoko biztanleei buruz hitz egiten dugunean, laguntza hori behar izan duten lau kontsumitzailetatik bat daukagu hizpide.
- Horrez gain, %15,1en esanetan, esertzeko leku bat behar izan dute erosketak egin bitartean.
- Bestetik, %13,6k adierazi dutenez, komunera joan behar izan dira erosketetan zeudenean, baina ezin izan dute erabili, ez zegoelako edo bezeroentzat egokia ez zelako edo itxita zegoelako.
- Era berean, %24,0k baieztatu dutenez, haientzat erosoagoa da telefono bidezko eskaerak egitea eta erosketak etxean bertan jasotzea online erosketara erabiltzea baino. %25,2k ez diote baieztapen horri erantzun, online erosteko aukera oso-oso urrun dagoela ikusten dutelako. Telefono bidezko eskaeraren inguruko interesa areagotu egiten da 75 urte baino gehiagokoen artean.

# Euskal merkataritza dauden zailtasunak

19.G: Ondoren, zenbait baieztapen irakurriko dizkizut euskal merkataritzari, bertako zerbitzuei eta 55 urtetik gorako biztanleen premiei buruz, eta, zeure egoera kontuan hartuta, baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adieraztea nahi nuke.

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira




## Merkataritzan dauden zailtasunak

19.G: Ondoren, zenbait baieztapen irakurriko dizkizut euskal merkataritzari, bertako zerbitzuei eta 55 urtetik gorako biztanleen premiei buruz, eta, zeure egoera kontuan hartuta, baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adieraztea nahi nuke.

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira

■ 55 - 65 urte (n=321)    ■ 66 - 75 urte (n=228)    ■ 75 urte baino gehiago (n=153)



5.-

---

*SILVER* BELAUNALDIAREN  
IRITZIA

Azkenik, azterlanak euskal biztanle seniorrek zahartzapenarekin lotutako era bateko eta besteko estereotipoei buruz dituzten iritzien berri ematea dauka helburu. Lehenengo eta behin, jendeari bizitzako helduaroan **ematen zaien agerikotasun sozialari edo garrantziari** dagokionez, argi eta garbi dago biztanle gehienak bat datozela proposatutako hausnarketekin:

- Batetik, %47,3 oso edo nahikoa ados daude gaur egungo gizarteak adinekoen iritzia gutxitan kontuan hartzen duela dioen baieztapenarekin.
- Antzeko ehunekoa (%48,3) bat dator komunikabideek eta marken publizitate-kanpainak 55 urtetik gorako biztanleak ezer gutxi kontuan hartzen dituztela dioen baieztapenarekin.
- Ehuneko (%48,5) berberaren ustez, beti-beti modu txarrean hitz egiten da urteak betetzeko eta zahartzeko prozesuei buruz.


Emakumeek gizonak baino adostasun handiagoa dute ideia horiekin, azkenarekin, batez ere, hau da, zahartzapena iritzi txarrarekin lotzen duen ideiarekin, emakumeen kasuan are nabariagoa dela kontuan hartuta.

Bestetik, adinak aldeak zehazten ditu haien adinekoen iritzia zer gutxitan kontuan hartzen den adierazteko orduan. Hemen, hain zuzen ere, iritzi hori duten 55 - 65 urteko biztanleen kopurua %39,4koa da, eta %55,4ra igotzen da 66 - 75 urtekoen artean, une horretan, gutxi gorabehera, erretiratu egiten direla kontuan hartuta. Alde hori 16 puntu portzentualekoa da, gainera.

# 55 urtetik gorako biztanleen agerikotasun sozialari buruzko iritziak

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira






# 55 urtetik gorako biztanleen agerikotasun sozialari buruzko iritziak

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira




# 55 urtetik gorako biztanleen agerikotasun sozialari buruzko iritziak

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira

■ 55 - 65 urte (n=321)   ■ 66 - 75 urte (n=228)   ■ 75 urte baino gehiago (n=153)



**Eten digitalari** dagokionez, kontsultatutakoen %73,7ren ustetan, gero eta digitalizatuago dagoen munduan eraldaketa digitalerako prozesua aurreratuta dagoela kontuan hartuta, adinekoak prozesu horretatik eta, horren ondorioz, gizartetik bertatik isolatuta eta baztertuta geratzen ari dira apurka-apurka. Puntu honetan, aurkako iritziak ez dira oso sakonak. Ideia horrekin, gainera, adostasun handiagoa dute emakumeek, eta, 75 urte baino gehiagokoen artean, hamar biztanletatik bederatzi daude ados horrekin.

Bestetik, %62,0k neurri handiagoan edo txikiagoan baieztatu dutenez, sektore finantzarioak edo bankuek aurrez aurreko zerbitzu asko kendu dituztenez, arazoak dituzte kontsumitzaile moduan. Arazo horrek, gainera, eragin berezia dauka 75 urte baino gehiagoko biztanleen artean.


Era berean, gehienek (%55,3) adierazi dutenez, senideen edo adiskideen laguntza behar izan dute administrazio publikoarekin zenbait kudeaketa egiteko, zailtasunak eduki dituztelako arreta jasotzean edo online kanalaren bidez garatu beharreko urratsak ulertzean. Halaber, 75 urtetik gorakoen ustez, mugatzaileagoa da, eta ez da hain partaidetzazkoa.

Horrez gain, kontsultatutako bi biztanletatik ia-ia batek (%49,6) laguntza eskatu behar izan die senideei edo adiskideei, telefono mugikorrarekin arazoak izan dituenen. Arlo horretan, badirudi emakumeak desabantaila handiagoan daudela, trebetasun digital gutxiago dauzkatela diote-eta.

# Eten digitalari buruzko iritziak

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.


Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



## Eten digitalari buruzko iritziak

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.


Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



## Eten digitalari buruzko iritziak

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira




# Eten digitalari buruzko iritziak, trebetasun digitalen arabera

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira

■ Bat ere ez (n=109) ■ Oso oinarrizkoak (n=123) ■ Oinarrizkoak (n=233) ■ Erdi-mailakoak (n=187) ■ Handiak / Oso handiak (n=50)



Aztertutako kontsumitzaile seniorra den biztanle-taldea tradizioaren arabera lan-bizitzan parte hartzeko etapa aktibotik erretiratzeko etapa ez-aktibora igarotzen ari da. Alde horretatik, gai horiei buruzko iritzia eskatu zaie, baita **emankortasunarekin eta laneratzeko adinkeriarekin lotutako estereotipoei** buruzkoa ere.


- Kotsultatutako hamar biztanletatik bederatzi ados daude adineko biztanleak gure gizarteko funtsezko zutabea direla esaten denean, belaunaldi gazteenei laguntza eta babesa ematen dizkietelako.
- Halaber, hamarretik zortzik neurri handiagoan edo txikiagoan uste dute 55 urtetik gorakoak beste adin-talde batzuk bezain emankorrak direla eta, horren ondorioz, haiek besteko ekarpenak egiten dituztela.
- Era berean, hamar lagunetatik ia-ia zortzik uste dutenez, bizileku daukagun gizartean 50 urtetik aurrera lana galduz gero, zaila da beste enplegu bat aurkitzea. Laneratzeko orduan dagoen adinkeriaren arazo horrek are indar handiagoa dauka etapa aktiboko biztanleen artean, hau da, 65 urtetik beherakoen artean.



# Laneratzeke zailtasunei eta emankortasunari buruzko iritziak

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.


Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



## Laneratzeko zailtasunei eta emankortasunari buruzko iritziak

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.


Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



## Laneratzeko zailtasunei eta emankortasunari buruzko iritziak

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



Azkenik, adineko biztanleak **zahartzeko** eta **umetzeko** prozesua edo haien **autonomiaren galera** kontuan hartuta, elkarrizketatutako hamar lagunetatik bederatzik diotenez, euren erabakiak hartzeko erabateko gaitasuna daukate.


Kontsultatutako 55 - 65 urteko eta 66 - 75 urteko biztanle ia-ia gehienek uste dute hori. Adin horretatik aurrera, euren bizitza gobernatzeko erabateko gaitasuna dutela uste dutenen kopurua %72,5era jaisten da. Ulegarria denez, osasun ona ez dutenak zaurgarriagoak dira.

Bestetik, %9,6k baino ez dute uste haien familia-inguruneok are gehiago kontrolatzen dituztela haien bizi-baldintzak eta eurengan eragina duten erabakiak. Badirudi 75 urtetik aurrerakoak iritzi berekoak direla, kontsultatutako lau lagunetatik ia-ia batek baieztatu duelako hori.

# Norberaren autonomiari buruzko iritziak

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.


Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



## Norberaren autonomiari buruzko iritziak

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.


Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



## Norberaren autonomiari buruzko iritziak

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.


Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira



## Norberaren autonomiari buruzko iritziak, osasun-egoeraren arabera

29.G: Ondoren, beste batzuek 55 urtetik gorako biztanleei buruz egin dituzten zenbait baieztapen irakurriko dizkizut. Baieztapen bakoitzarekin zer neurritan zauden ados edo desados adierazi.

Oinarria: elkarrizketatutakoak guztira





---

# 6.- AZKENIK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK



*Silver* belaunaldira hurbiltzean, hobeto ezagutuko dugu Euskadin 800.000 lagun biltzen dituen 55 - 85 urteko biztanleen taldea.

Biztanle-talde anitza da, zenbait etapatako jendea sartzen delako bertan: lan-bizitzako betebeharren eraginpean dagoen hasierako zikloa, bizi-kalitatea lagun norberaren denboraz gozatzeko beste ziklo bat eta, azkenik, 4. adinaren atalasean dagoen beste ziklo aurreratu bat.

Talde moduan, haien ezaugarri orokor batzuk zein diren jakiteko aukera eskaini digu azterlanak:

- Biztanle-talde honek osasun-egoera ona dauka, %63,4k baieztatu dutenez. Gainera, hurrengo bi urteetarako dituzten aurreikuspenen arabera, ez dute aldaketarik jasango.



- Bi lagunetatik ia-ia baten ustez, gaur egun bizi duen unea planez eta ilusioz betetako etapa da. Horrez gain, hirutatik baten iritziz, bere une onenetakoa da.
- Teknologiarekin bat egin dute, nahiz eta 65 urtetik gorako gehienen ustez haien trebetasun digitalak oinarrizkoak diren eta, horren ondorioz, nolabaiteko bazterketa-arriskuan dauden.
- Hamar lagunetatik zortzik bizimodu aktiboa dutela baieztatu dute. Oinez ibiltzea etengabeko jarduera da haien ariketa-ohituren artean.



- Haien astialdia jardueraz beteta dago. Honako hauexek dira, besteak beste: telebista ikustea, familiarekin zein adiskideekin elkartzea, irakurtzea, bidaiatzea, Interneten nabigatzea, zinera joatea, kirola egitea, ekitaldi kulturaletara joatea, kartetan jokatzeko, ilobak zaintzea... eta ezin konta ahala zaletasun ere bai (musika, sukaldaritza, brikolajea, lorezaintza...). Azken batean, edukiz betetako astialdia den arren, apurka-apurka murrizten da bizitzako etapetan aurrera egiten duten neurrian.

*Silver* belaunaldiaren kontsumoa ez da huskeria. Iaz, guzti-guztiek erosketak egin zituzten elikagaien kategorian; eta gehienek, honako kategoria hauetan: norberaren ekipamendurako produktuak (moda, oinetakoak eta osagarriak) eta osasunarekin lotutako produktuak (farmaziak, optikak, entzumen-zentroak...).



Era berean, honako kategoria hauetako kontsumoa ere bada nabaria: bidaiak, edertasun-produktuak, etxetresna elektrikoak, kultura, liburuak, diskoak...

Gastuari dagokionez, belaunaldi honentzat zeresan handiena daukan kategoria elikagaiena da; eta, ostean, janzteko produktuak, osasunarekin lotutakoak eta bidaiak.

Izan ere, *silver* belaunaldiak elikagaiei eta osasunarekin lotutako produktuei ematen die balio handiena, zaintzea araua den bizitzako etapan.

Bestetik, bidaiak, zeresan handiena duten zaletasunetakoak, ezinbestekoak dira 55 - 65 urteko biztanleen artean. Izan ere, balio handieneko gastu-partidetakoa da.



Beretzat ez ezik, *silver* belaunaldiak bere inguruko beste batzuentzat ere kontsumitzen du, kontsultatutako lau emakumetatik batek baino gehixeagok baieztatu duenez. Seme-alaben, iloben eta, oraindik eduki badauzkate, gurasoen premiek erosketa berriak bultzatzen dituzte elikagaietan, norberarentzako ekipamenduan, osasunean edo jostailuetan, batez ere.

55 urtetik gorako euskal biztanleek online ere erosi dute, nahiz eta %33,1en ustez horrelako erosketak noizean behin edo unean-unean egiten dituztela esan daitekeen. Izan ere, %20,2k baieztatu egin dute nolabaiteko maiztasunaz erosten dutela kanal horretan.



Internetek ez lekualdatzeko eta erositakoa etxean bertan jasotzeko erosotasuna eskaintzen die, baita era guztietako produktuak aukeran edukitzea ere. Edonola ere, zibersegurtasunarekin lotutako arriskuak ere antzeman dituzte (iruzurrezko orrialdeak, ordainketak...), baita hasierako aurreikuspenekin bat ez datozen produktuak jasotzeko arriskua ere.

Bestetik, belaunaldi honen zati handi baten ustez, komunikabideek, markek eta publizitateko kanpainen ez dituzte kontuan hartzen, eta nolabaiteko "ikusezintasun sozial" hori are handiagoa da 65 urtetik aurrera. Hau da, bi kontsumitzailetatik ia-ia baten ustetan, gizarteak ezer gutxi kontuan hartzen du haien adinekoen iritzia.



Era berean, biztanle horien zati batek uste du zenbait arlotan baztertuta dagoela eten digitalaren ondorioz, eta zailtasunak ditu arlo administratiboan edo finantzarioan beharrezkoak diren izapideak egiteko orduan.

Horren aurrean, hamar biztanletatik bederatzi ados daude gaur egungo gizarteko funtsezko zutabea den belaunaldia direla esaten denean. Izan ere, euren zeregina jartzen dute agerian, belaunaldi gazteenei babesa eta laguntza ematen dizkietelako.

Alde horretatik, kontsultatutako hamar biztanletatik bik baieztatu dutenez, euren diru-sarreraren zati bat erabili dute euren familiako beste kide batzuen gastuak ordaintzeko; esate baterako, seme-alabei gastu orokorretarako emandako laguntzak, hipoteken kuotak, iloben ikasketak, emantzipatzeko bultzada eta laguntza...





Euskal merkataritzari dagokionez, Euskadi Lagunkoia edo antzeko ekimenek zentzu osoa daukate, are gehiago azterlanean agerian geratu den datua kontuan hartzen denean: *silver* belaunaldiaren ia-ia %20ren ustez, euskal merkataritza ez dago erabat egokituta adineko biztanleen premietara. Hori, ordea, neurri handiagoan baieztatu dute 55 - 65 urte dituztenek, zahartzeko prozesuarekin lotutako zailtasunetatik urrun daudelako oraindik.

Apalategi garaietan edo oso baxuetan daudenez oso eskuragarriak ez diren produktuak, informaziorako etiketetako, prezioetako edo karteletako letra txikiak, atsedeen hartzeko guneen edo komun publikoen falta... Horra hor bizimodu aktibo eta autonomoari eusteko oztopoak izan daitezkeen alderdiak. Kasu horretan, ikusi dugunez, haien kontsumoa ezartzen da haien bizitzako zati nabarian.



euskadiko merkataritzaren behatokia  
observatorio del comercio de euskadi



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO



Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz



945 019 718



behatokia-merkataritza@euskadi.eus



[www.euskadi.eus/enfokamer-observatorio-comercio](http://www.euskadi.eus/enfokamer-observatorio-comercio)